

Bular-emaileen maizko patologien maneiu

INGURGITAZIOA



Ingurgitazio goiztiarra (erdiondoko lehen egunetan) hormona-aldaketaz eraginda dago. Bularra tamainuz handitzen da interstizial likidoa akumulatzen delako eta esne-produkzioa areagotzen delako
SINTOMAK: bi bularrak oso trinkoak daude, azala oso tenkatuta. Bi aldeko mina. Sintoma sistemikorik EZ.

ESNE-HODI BATEN BUXADURA



Eraginkorra ez den bular drainatzek esne-hodi baten buxadura eragiten du, normalean jarrera desaproposa delako edo umek xurgatzeko zailtasunak aurkitzen duelako.
SINTOMAK: bular bakar batean kokatzen den min handia, gorritz eta berotuta dagoen aldea ikus daiteke. Ez dago sintomatologia sistemikorik.

MASTITIS AKUTUA



Mastitis larriak askotariko etilogia dauka. Heldualdi desegoki bat, eraginkorra ez den drainatze eta bularpuntako erroitzekin lotuta dago.
SINTOMAK: bular bakar batean kokatzen den min handia, gorritz eta berotuta dagoen aldea ikus daiteke ala ez. Ohikoa da sukarra edukitzea >38,5°C eta ondoezen handia eta orokorra izatea, sistemikoa den sintoma horrek mastitis-a buxadura batez bereizten du.

Hiru patologiarako lehenengo mailako tratamenduak: DRAINATZE SARRIA ETA ERAGINKORRA

Erosotasun neurriak dira, EZ tratamendua:
Beroa/hotza: Errebote-efektua sor dezakete eta gehienez 5 minutu erabili beharko dira
Analgésiko/hantura-contrako ahoko botikak
Masaje: bera soilik ez da eraginkorra, drainatze sarriarekin konbinatuta dagoenean baizik

Mota hauetako tratamendurako ez dago ebidentziarik:
Azako ostoak, oxitocina-inyektzioak, ultrasoinuak, probiotikoak

Bularra drainatzen duenak umek izan behar du, maiz edoskaldiekin. Goserik ez badu ala umek ezin badu bularra hartu, orduan:

1. PAUSOA : eskuz ateratzea, areola biguntzen den edo esne-tantak isurtzen diren arte. Alderantziko presio leungarria deritzon teknika erabili genezake.
2. PAUSOA: Esnea isurtzen denean (ez lehenago), esne-ateragailua erabil dezakegu, kopa-neurria egokia aukeratuz.
3. PAUSOA: Bularra maiz drainatu (ordu eta erdiro edo bi orduro) eta eraginkorki ingurgitazio dagoenean eta umek ezin duenean, EZ du esne-produkziorik areagotzen eta BAI kalte konpoezinak saihesten du albeoloetan, gehiegizko presioa pairatzen baitute.

Bularra drainatzen duena umek izan behar du, maiz edoskaldiekin. Goserik ez badu ala umek ezin badu bularra hartu, orduan:
Amak maiz eta eraginkorki drainatu behar du buxatuta dagoen bularra (ordu eta erdiro eta bi orduro). Eskuz edo esne-ateragailua erabil dezake, kopa-neurria egokia aukeratuz.

Bularra drainatzen duena umek izan behar du, maiz edoskaldiekin. Goserik ez badu ala umek ezin badu bularra hartu, orduan:
Amak maiz eta eraginkorki drainatu behar du buxatuta dagoen bularra.
Amaren atsedena, hidratazio eta elikadura aproposa gomendagarria da.

Mastitis kasuen ehuneko %85a, drainatze sarria eta eraginkorrarekin sendatzen da. 12-24 ordu pasatzen badira eta sukarra jarraitzen badu, antibioterapia hasten da *S.aureus* aurre egiteko: cloxacilina 500 mg/6 ordu 12 egun ala cefadroxilo 500 mg/12 ordu 12 egun.

Esne-kultiboa eskatuko dugu BAKARRIK kasu hauetan: 48 orduko antibiotiko tratamenduarekin ez badago hobekuntzarik
- Mastitis akutua nosocomiala edo klinikako atipikoa/larria
- Ohiko antibiotikoei alergia daukan gaixoa

BIBLIOGRAFIA

1. Mangesi L, Zakarija-Grkovic I. Treatments for breast engorgement during lactation. *Cochrane Database of Systematic Reviews* 2016, Issue 6. Art. No.: CD006946. DOI: 10.1002/14651858.CD006946.pub3
2. Guía de Práctica Clínica sobre lactancia materna. Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad; Agencia de Evaluación de Tecnologías Sanitarias del País Vasco-OSTEBA, 2017. Guías de Práctica Clínica en el SNS.
3. Baeza C. Acute, Subclinical, and Subacute Mastitis: Definitions, Etiology, and Clinical Management. *Clinical Lactation* 2016, Vol 7, Num 1
4. Lisa H. Amir and The Academy of Breastfeeding Medicine Protocol Committee. ABM Clinical Protocol #4: Mastitis, 2014. *Breastfeeding Medicine* Vol 9, Num 5